

Txotx Festa Txindurri Iturrin



Eñaut | atzo : 22:00

Urtero bezala, Txotx Festa ospatuko da Itziar-Debako Txindurri Iturri sagardotegian, denboraldiari hasiera emateko ospakizunean. Hitzordua larunbat honetan da, urtarrilak 18. Familia eta lagun giroan egindako ospakizuna da, eta oraingoan ere kartel berezia aurkeztu dute.



Txalapatariak emango diete hasiera egunari, eta sagardotegiko menuarekin bapo bazkaltzeko aukera izango da. Bazkalostean bertso-saioa helduko da, eta azken urtetan ohikoak diren Arkaitz Estiballes eta Iratxe Ibarra izango dira, kafea eta patxaranarekin batera.

Jaia luzatu nahi duenarentzat ere badago aukerarik: afari-merienda eta musika-gaua, aspertu arte behintzat. Txindurri Iturri nekazalturismo etxea ere badenez, bertan lo egiteko aukera dago.

Info gehiago [Facebooken](#) eta 699 684 490 telefonoan!

Erantzun
